



# **GOBERNU BILERA**

**Prentsa-Txostena  
Erabaki nagusiak**

# **CONSEJO DE GOBIERNO**

**Dossier de Prensa  
Acuerdos destacados**

**Vitoria-Gasteiz, 2024ko maiatzak 14**

**Vitoria-Gasteiz, 14 de mayo de 2024**

## Segurtasuna

### HAUTESKUNDE GARAIAN EUSKADIKO HAUTESKUNDE BATZORDEA OSATU DUTEN PERTSONEN ORDAINSARIAK ONARTU DIRA

- Eusko Legebiltzarreko Mahaiak proposatuta, Gobernu Kontseiluak gaur goizean onartu ditu 2024ko Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeak deitu zirenetik organo hori osatu zuten pertsonen haborokinak eta ordainsariak

Gobernu Kontseiluak gaur goizeko bileran onartu ditu 2024ko apirilaren 21eko Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeetan Euskal Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordea osatu zuten pertsonen ordainsariak.

Erabaki hori Eusko Legebiltzarreko Mahaiak proposatuta eta *Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzko ekainaren 15eko 5/1990 Legearen* 20.3 artikuluan ezartzen duenari jarraituz hartu da, artikulua horretan ezartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordea osatzen duten kideen eta horien zerbitzura dauden langileen dietak eta ordainsariak Eusko Jaurlaritzak finkatuko dituela.

Horrela, hauek dira haborokin gordinak:

- ✓ Lehendakaria: 5.794 euro
- ✓ Lehendakariordea: 4.529 euro
- ✓ Bokalak: 3.374 euro
- ✓ Idazkaria: 4.906 euro
- ✓ Beste kide batzuk: 2.842 euro

Bestalde, hauek dira laguntza-langileen ordainsari gordinak:

- ✓ Letradua: 2.900 euro
- ✓ Administraria: 2.000 eta 2.600 euro
- ✓ Itzultzailea: 2.500 euro
- ✓ Informatikaria: 2.000 euro
- ✓ Komunikazio-arduraduna: 2.200 euro

## Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena

### **EUSKO JAURLARITZAK 2 MILIOI EURO BAINO GEHIAGO BIDERATUKO DITU EUSKADIKO NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN SEKTOREKO ARLO ZIENTIFIKO-TEKNOLOGIKOKO LANGILEEN PRESTAKUNTZARA**

- **IKERTALENT** programak 12 beka ematen dizkie prestatzen ari diren ikertzaileei, eta 10 beka teknologoei, atxikitako teknologia- edo ikerketa-zentroen proiektuetan parte hartzeko
- **2007az geroztik, 269 proiektu finantzatu dira laguntza horien bidez, eta I+G+Bko jarduera indartu dute EAeko nekazaritza-, arrantza- eta elikagaigintza-sektorean**

Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburu Arantxa Tapiaren agindua onartu du gaur. Agindu horren bidez, IKERTALENT 2024 programarako deialdia egin da, nekazaritza-, arrantza- eta elikagaigintza-sektoreko zientzia-, teknologia- eta enpresa-arloan ikertzaileak eta teknologoak prestatzeko laguntzak emateko.

IKERTALENT programaren deialdi honek 2.090.000 euro baino gehiago ditu, ikertzaileen eta teknologoek prestatzeko eta sustatzeko. Horretarako, Euskadiko teknologia-zentroetan sartuko dira, eta zentro horietan I+G+B proiektuak garatzen parte hartu ahal izango dute arlo zientifiko-teknologikoetan, merkatuetan, marketinean eta euskal nekazaritzako elikagaien balio-kate osoko enpresa-antolaketan.

IKERTALENT programa 2007. urtean jarri zen abian, eta, orduetik, Eusko Jaurlaritzak 269 proiektu finantzatu ditu guztira: 125 ikertzaile gazte eta 144 teknologo gazte.

Deialdi honetan 12 beka eskaintzen dira prestatzen ari diren ikertzaileentzat eta 10 beka teknologoentzat.

#### **Laguntza-lerroak eta zuzkidura ekonomikoa**

IKERTALENT programa bi laguntza-ildotan egituratzen da:

1. Prestatzen ari diren ikertzaileentzako laguntzak. Horien bidez, doktorego-tesiak egitea sustatu nahi da doktorego-langilerik ez dagoen ikerketa-arloetan, eta laguntza horiek euskal egitura zientifiko-teknologikoan gehiago txertatu behar dira. Modalitate honek ondoko ondoko lau urteko iraupena eta doktoratu aurreko kontratu baten ezaugarriak ditu.
2. Teknologoak prestatzeko laguntzak, euskal nekazaritza-, arrantza- eta elikagaigintza-sektoreko arloetan espezializatutako teknikariak prestatzeko. Teknikari horiek sektore-jardueran sar daitezke, sektoreko enpresen eta elkarten bidez, edo eragile zientifiko-teknologikoen jardueran. Modalitate honek gehienez 2 urteko iraupena du.

2024ko deialdirako aurrekontu-zuzkidura 2.090.903,84 eurokoa da guztira, prestatzeko-aldian dauden langileen kostua ordaintzeko, laguntza-modalitate

bakoitzerako ezarritako iraupen-aldian, bai urteko ordainsari ekonomiko gordina, bai onuradun bakoitzaren Gizarte Segurantzaren kuotari dagokion zenbatekoa.

Prestatzen ari diren ikertzaileek 22.000 euro jasoko dituzte lehen urtean, 23.000 euro bigarreanean, 25.000 euro hirugarreanean eta 31.500 euro laugarreanean.

Bestalde, teknologoei 17.000 euro jasoko dituzte urtean, bi urtez.

Bi kasuetan, prestakuntza-prozesutik eratorritako gastuak ordaintzeko laguntza osagarria jaso ahal izango dute, hala nola laguntzarekin lotutako unibertsitate-ikastaroetan matrikulatzea, kongresu zientifikoetara joatea, mintegiak, laguntzarekin lotutako ikastaroak eta lan-jardunaldiak, beste ikerketa- eta teknologia-zentro batzuetako egonaldiak, laguntzarekin lotutako material bibliografikoa edo doktorego-tesia aurkeztearekin lotutako gastuak. Ikertzaileentzako laguntza osagarria 8.000 eurokoa da (2.000 euro prestakuntza-urte bakoitzeko), eta teknologoentzat 2.000 eurokoa (1.000 euro prestakuntza-urte bakoitzeko).

### **Onuradunak**

Laguntzak jaso ahal izateko, eskatzaileak proiektu jakin bakoitzerako zehaztutako graduren bateko titulua izan beharko du. Eskabidean kalifikazio guztiak egiaztatzen dituen ziurtagiri akademiko osoa sartu beharko da, baita kalifikazio horiek lortzeko datak ere. Curriculum vitae ere bai, alegatutako merezimenduak egiaztatzen dituzten egiaztagiriekin batera.

Nekazaritza, arrantza eta elikadura sektoreko I+G+b proiektuak garatzeko estrategikotzat eta lehentasunezkoztat jotzen diren arloak honako hauek dira:

- Nekazaritza eta akuikultura ekologikoa.
- Proteina-iturri berria.
- Bioekonomia.
- Digitalizazioa eta teknologia berriak.
- Baso-kudeaketa.
- Arrantza-kudeaketa eta itsas ekosistemak.
- Nutrizioa, elikadura osasungarria, jasangarria.
- Animalien Osasuna.
- Ingurumen-jasangarritasuna.
- Ekoizpen-sistema iraunkorrak eta osasungarriak.

Proiektuak honako teknologia- edo ikerketa-zentroekin lankidetzan garatuko dira: EHUko Farmazia Fakultatea, Zientzia eta Teknologia Fakultatea eta Kimika Fakultatea; AZTI; Neiker; BC3; Basque Culinary Center eta Leartiker.

### **Aurkezteko epea**

IKERTALENT programako laguntzetarako eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, deialdiaren agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Eskabideak telematikoki aurkeztuko dira, Euskadiko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan sartuta. Eskabideari eta eskatutako dokumentazioari buruzko zehaztapenak eskuragarri egongo dira, agindua EHAAr argitaratu ondoren, esteka honetan: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1029112>



## Hezkuntza

### HEZKUNTZA SAILAK 11,9 MILIOI EURO BIDERATU DITU IKERTZAILEEN PRESTAKUNTZA ETA HOBEKUNTZARAKO, DOKTORATU AURREKO KONTRATUEN BIDEZ

- Hezkuntza Sailak %6 handitu du deialdi honen aurrekontua, iazkoarekin alderatuta
- 2024-2025 ikasturtean, 416 euskal ikertzailek izango dute Doktorego aurreko kontratua, deialdi honi esker

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, gaurko bilera onartu du 2024-2025 ikasturtean Doktoratu aurreko Programan laguntza berriak deitu eta lehendik zeudenak berritzen dituen Agindua, doktore ez den pertsonal ikertzailearen prestakuntzara zuzenduak.

11.899.267 euroko diru-kopuru globala duen deialdi honek, ikertzaileen prestakuntza sustatu nahi du, Doktore titulua lortu ahal izan dezaten, eta kalitatezko ikerketa zientifikoari lotutako gaitasun eta trebetasunak eskuratu ditzaten, Doktoretza Programa baten barruan. Deialdiak bere barne hartzen du bai laguntza berriak ematea, eta baita aurreragoko deialdietan emanikoak berritzea ere. Zehazki, kopuru horretatik 2.657.960 euro laguntza berriak emateko bideratuko dira, eta gainerako 8.591.447 euroak lehendik indarrean zeudenak berritzeko.

Gainera, deialdi berriak iaz abian jarri zen lerro berriari eusten dio, Doktorego Ondoko Orientazioa izeneko lerroari, eta 649.860 euro bideratzen ditu bertara. Zenbatekoak honela banatuko dira:

<b>Lerroak</b>	<b>Guztira (€)</b>
Laguntza berriak (Ikerketa orokorra)	2.556.063
Laguntzak berritzea (Ikerketa orokorra)	8.374.328
Laguntza berriak (Ikerketa espezifikoa)	101.897
Laguntzak berritzea (Ikerketa espezifikoa)	217.119
Dokt. Ondorengo orientazioa (Ikerketa orokorra)	617.367
Dokt. Ondorengo orientazioa (Ikerketa espezifikoa)	32.493
<b>Guztira</b>	<b>11.899.267</b>

Doktorego Ondoko Orientazioa deituriko lerro berri honek kontratua beste urtebetez luzatzeko aukera ematen die, kontratuaren hirugarren berritzean doktorego-tesia amaitzen duten pertsoneri, 4 urteko laguntza amaitu aurretik.

Aurreko 2023-2024 deialdiarekin alderatuta, Hezkuntza Sailak %6 handitu du programara bideratutako aurrekontua.

## 416 ikertzaile 2024-2025ean

Horrela, 2024-2025 ikasturtean, 416 euskal ikertzailek doktoretza aurreko kontratua izango dute: 306 kontratu berrituko dira eta doktoretza aurreko 110 laguntza berri emango dira. 2023-2024 ikasturte honetan 394 euskal ikertzailek jaso dituzte doktoratu aurreko kontratu horiek: 109 laguntza berri gisa izan ziren – horietako bi neutronikaren eta partikulen azelerazioaren arlo espezifikoan eta beste bi hezkuntzan –, eta gainerako 285 kasuetan, berritzeak izan ziren.

### Doktoratu aurreko kontratuak

Laguntza hauen onuradun izango dira, unibertsitate lizentziatura edo gradu bat izanik tesi-proiektua egingo duten pertsona fisikoak, betiere egoitza EAEn dutenak. Laguntza horiek doktoratu aurreko kontratu baten ezaugarriak izango dituzte, urtebeteko iraupenarekin. Kontratu hori bere ikerketa garatuko duen aplikazio-zentroarekin izenpetuko du ikertzaileak. Kontratuaren xedea izango da proiektu zehatz eta berrietan ikerketa-lanak egitea, lanaldi osoko erregimenean. Kontratua beste hiru alditan ere luzatu ahal izango da (gehienez elkarren segidako 48 hilabetez), laguntza berrituz gero.

Laguntza hauek jasotzeko aplikazio-zentroak, eta beraz, ikertzaileekin kontratuak sinatuko dituztenak, unibertsitate edo ikerketa erakundeak izango dira, publiko zein pribatuak, I+G-an ahalmen eta jarduera ezaguna dutenak. Zentro hauek izan dezakete egoitza EAEn (A modalitatea), Estatuan (B modalitatea), edo atzerrian (I modalitatea). Hirugarren modalitate honen kasuan, ikertzaile onuradunak Ikerbasquerekin sinatuko du kontratua. Kontratu horretan osagarri bat ere jasotzen da, urtean atzerriko zentrorra joan-etorriko bidaia bat finantzatzeko.

Doktoratu aurreko kontratuen onuradun guztiek 4 eta 6 hilabete arteko ikerketa-egonaldia egingo dute atzerrian, ezarpen-zentroaz bestelako zentroetan. Baldintza horrek doktoregoaren nazioarteko aipamena lortzea erraztuko du. Atzerriko egonaldia doktoratu aurreko laguntzaren lehen 3 urteetan egingo da, eta modu jarraituan. Helburua da programa amaitzean prestatzen ari diren ikertzaile guztiek nazioarteko aipamena eta profila duen tesi bat izatea.

### Ikerketa orokorra eta espezifikoa

Doktoratu aurreko programak bi jarduera-arlo nagusi ditu: ikerketa orokorreko arloa eta ikerketa espezifikoko arloa. Arlo horietako bakoitzak kontratu berriak eta berritzeak jasotzen ditu.

Ikerketa orokorraren ildoak honako jakintza-arlo hauetan garatu beharreko ikerketak biltzen ditu: Oinarrizko Zientziak; Bizitzaren eta Osasunaren Zientziak; Ingeniaritzak, Teknologia eta Arkitektura; eta Gizarte Zientziak eta Giza Zientziak.

Berariazko ikerketaren eremuan, datorren 2024-2025 ikasturterako deialdi honek neutronika eta partikulen azelerazioan ikerketa bultzatzeko dirulaguntza

lerroari eusten dio. Ikerketa arlo hau interes bereziko da egun Europako Batasunean eta bereziki Euskadin, balio estrategiko handia baitu EAEko zientzia, teknologia nahiz industriaren etorkizunerako. Gainera, Euskadiko I+G+b garatzeko abagunea ere eskaintzen du. Gure erkidegoko zientzia-komunitatea arlo honetan sendotzea eta areagotzea lehentasunezko helburua da, Europako Batasunak ESS Lund espalaziozko neutroi iturriaren inguruan ezarri dituen helburu zientifikoak indartzeko.

### **Hezkuntza aroko ikerketa**

Neutronikarekin batera, deialdi honetan eusten zaio -berariazko ikerketa eremuaren barruan- Hezkuntza arloari ere ikerketa-ildo gisa. Helburua hezkuntzaren arloko ildo estrategiko batzuetan ikerketa sustatzea da, hala nola digitalizazioa (metodologiak eta gaitasun tekno-pedagogikoak), gaitasun zientifiko-teknologikoak eskuratzea STEAM proiektuen bidez; edo kulturartekotasuna eta eskola-arrakasta.

Arlo hau balio estrategikoko eremua da euskal hezkuntza-sistemaren etorkizunerako, eta, gainera, aukera bat da I+G+b-ren etorkizunerako, euskal hezkuntza-sistemarekin lankidetzan. Euskadin arlo horretan komunitate zientifikoak indartzea eta zabaltzea lehentasunezko helburua da Hezkuntza Sailarentzat, bikaintasuneko ikerketaren emaitzak barne hartzen dituen politikaren barruan.

Doktoratu aurreko programa hau ikerkuntzako giza baliabideak sustatzeko politikan sartzen da, hain zuzen ere Eusko Jaurlaritzako Unibertsitate Planean (2023-2026 aldikoan) eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskadi 2030 Planean; ildo horretatik, programaren helburua da lanbide-jarduera ikerkuntzara bideratu nahi duten goi-mailako tituludunen berariazko prestakuntza bultzatzea. Halaber, zientzia eta teknologia gaietan lekukoa hartuko duen belaunaldi berriaren prestakuntza sustatzea ere bada programaren xedea.



## Hezkuntza

### UDAL ERAIKINAK ERABERRITZEKO UDALAGUNTZA PROGRAMAREN ZENBATEKOA HANDITU DU HEZKUNTZA SAILAK

- Eusko Jaurlaritzak udal-eraikinetako ikastetxeen hobetzea bultzatuko du 10,9 milioi euroekin
- Aurten 395 ekimen lagunduko dira, lehen aldiz energia-eraginkortasuna hobetzeko eta energia berriztagarriak ezartzeko proiektuak ere sartuko dira

Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, Udalaguntza 2023 programaren zuzkidura ekonomikoa 951.065,99 euroan handitzea onartu du gaur. Programa horren bidez, laguntzak ematen zaizkie Euskadiko udalei, udal titulartasunekoak izanik ere, ikastetxeak dituzten eraikinetan obrak egiteko gastuetarako.

Udalaguntza 2023 programaren deialdia egiten duen agindua 2023ko azaroaren 21ean onartu zen Gobernu Kontseiluan, 10 milioi euroko zenbatekoarekin. Gaur zuzkidura ekonomikoa handitzea onartu ondoren, Udalaguntza 2023 deialdiaren zenbateko osoa 10.951.065,99 eurokoa da, eta, beraz, laguntzak jasotzeko baldintzak betetzen dituzten eskabide guztiei erantzun ahal izango zaie.

Programa horri esker, 395 jarduera lagunduko dira diruz, aurreko ekitaldian baino 60 gehiago. Udalaguntzak harrera ona izan du toki-administrazioen aldetik; izan ere, aurreko ekitaldiko deialdiarekin alderatuta, 2 milioi gehiagorekin abiatu zen deialdia, eskaera gehiagori erantzuteko.

Hezkuntza Sailaren dirulaguntzak balorazio-batzordeak onartutako obren aurrekontuaren % 60 estaltzen du, gehienez ere 360.000 euro eskaera bakoitzeko. Gainerako % 40a proiektua aurkezten duen udalak hartzen du bere gain.

Udalaguntza 2023 deialdian, ikastetxeetan hobekuntza lanak egiteko proiektuak aurkezten dituzten Euskadiko udalek parte har dezakete. Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoak izan ohi dira gehien bat. Deialdi honen bidez finantza daitezkeen obrak 2023ko urtarrilaren 1etik 2024ko abuztuaren 31ra bitartean hasi beharko dira, eta 2024ko abenduaren 31 baino lehen amaituta egon beharko dute.

### Eraginkortasun energetikoa

Aurtengo deialdiak dakarren berritasun nagusia da, diruz lagundu daitezkeen jardun moten artean tipologia berri moduan ageri direla eraikinen eraginkortasun energetikoa hobetzeko lanak. Atal honek barne hartzen ditu

honako jardun mota hauek: instalazio termikoak (biomasa, aerotermia eta/edo geotermia); argiztapen-sistemak; ur bero sanitarioa ekoizteko sistemak edo energia elektrikoa sortzeko sistemak iturri berriztagarrietatik abiatuta; eta monitorizazio-sistemak eta kontsumoak erregulatzeko sistemak.

Gorago aipaturiko eraginkortasun energetikoa hobetzeko obra horiez gain, deialdiak, era berean, ikastetxeen teilatu edo egituretan egin beharreko ohiko jardunak ere jasotzen ditu, baita irisgarritasuna eta segurtasuna hobetzeko egiten diren lanak ere, edo instalazioak eguneratzeko obrak (arotzeria, instalazio elektrikoak, komun eta saneamenduak...), beste hainbat motatako lanen artean. Deialdi honen barruan ezin dira finantzatu eraikinaren lehen ezarpeneko, kontserbazioko eta mantentze-lanetako obrak.

## Osasuna

### OSASUN SAILAK ETA EUSKADIKO FARMAZIEK SENDAGAIEN SEGURTASUNA ZAINTEKO EUSKAL SARE ZENTINELA SORTUKO DUTE

- **Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak farmazia-bulegoetan asma eta biriketako gaixotasun buxatzaile kronikoa duten pertsonen artean inhalagailuen erabilera eta atxikidura hobetzeko programa implementatzea helburu duen beste hitzarmen bat ere baimendu du**

Gobernu Kontseiluak argi berdea eman dio **Euskadiko Farmazia Zentinen Sarea** ezarri eta garatzea helburu duen Osasun Sailaren eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Farmazialarien Elkargoen arteko lankidetzaren hitzarmena sinatzeari. Hitzarmen horren bidez, sendagaien segurtasuna zaintzen lagundu nahi da, farmazia komunitarioaren laguntza-dinamikaren barruan.

Sare horren jardura nagusia izango da sendagaiek eragiten dituzten ondorio kaltegarrien susmoak Euskadiko Farmakojagoletza Unitateari jakinaraztea. Gainera, arreta jarriko die txertoei, publizitate-sendagaiei, sendabelarrei, formula magistraleri eta sendagai homeopatikoei ere.

Euskadiko Farmakojagoletza Unitatea Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Farmazia Zuzendaritzaren mende dago eta Galdakao-Usansoloko ospitalean kokatzen da 1989az geroztik. Han jaso eta ebaluatzen dira osasunaren arloko profesionalek, herritarrek eta farmazia-industriak bidalitako ondorio kaltegarrien susmoak.

Bestalde, Gobernu Kontseiluak baimena eman du Osasun Sailaren eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Farmazialarien Elkargoen artean beste hitzarmen bat sinatzeko. Hitzarmen horri esker, farmazia-bulegoen bidez ezarriko da **asma eta biriketako gaixotasun buxatzaile kronikoa duten pazienteek inhalagailuak egoki erabiltzeko eta tratamenduarekiko atxikidura hobetzeko** programa.

Hitzarmen horren esparruan, Osasun Sailak urtean 120.000 euro jarriko ditu, guztira, Sailaren bi arlo estrategiko biltzen dituen proiektu aitzindari horretarako: gaixotasun kronikoak dituzten pertsonen arreta, eta farmaziak osasun-sisteman barne hartzea, gainerako laguntza-mailekin koordinatuta.

Asma eta biriketako gaixotasun buxatzaile kronikoa dira arnas-gaixotasun kroniko nagusienak. Euskadin, asmaren prebalentzia % 9,7koa da eta biriketako gaixotasun buxatzaile kronikoarena % 2,41koa. Bi gaixotasun horien tratamendu nagusia inhalagailu bidez aplikatzen da, eta oso garrantzitsua da inhalazio-teknika ondo ezagutzea, behar bezala egiten ez bada, medikazioa ez baita birikara iristen eta ez baitu eraginik.



## Kultura eta Hizkuntza Politika

### BIHAR MONTXO ARMENDARIZEN “TASIO” IKUSIKO DA CANNES ZINEMALDIAN

Montxo Armendarizen *Tasio* (1984) filmak emango dio hasiera bihar, maiatzak 15, Canneseko Zinemaldiko Classics sailari. Sail horretan, film klasikoak berreskuratzen ditu eta arlo horretako munduko garrantzitsuenetako bat da. "Tasio" film luzea Euskadiko Filmategiak zaharberritu du (4Kn ikusi ahal izango da), Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren laguntza ekonomikoari esker.

Eusko Jaurlaritzaren ustez, "albiste eta aukera bikaina" da Euskadi Basque Country eta euskal kultura kanpoan proiektatzeko. Era berean, Bingen Zupiria Eusko Jaurlaritzako bozeramaile eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak azpimarratu du film luze honen zaharberritzea beste mugarri bat dela kulturagintzan, batetik, film klasikoak zaharberritzeko lan-ildo berri bat irekitzen duelako, eta, bestetik, hainbat eragileren lana aintzatesten duelako.

Sailburuak Eusko Jaurlaritzaren, Euskadiko Filmategiaren, artisten eta hainbat eragileren arteko lankidetzaz azpimarratu du, film luze honen digitalizazioa ahalbidetu baitute. Horrela, "Tasio" k zinema-aretoetara edo plataformetara itzultzeko aukera izango du, egungo garaietara egokitutako baldintzetan, belaunaldi berriek euskal zinemarentzat garrantzitsua den lan bat ezagut dezaten.

#### Zaharberritzea

Jatorrizko materiala Espainiako Filmategian gordeta zegoen, eta handik egin zuen laborategietarainoko bidaia, joan den irailaren bukaeran. Bolonian, hura berraztertu, eskuz konpondu eta ultrasoinuekin garbitu zuten. Eskaneatu ostean, digitalki zaharberritu zuten: irudia egonkortu, eta marrak nahiz zikinkeria ezabatu zizkioten. Azkenik, kolorea zuzentzeari eta soinua zaharberritzeari ekin zioten; hain zuzen, Armendarizek berak ikuskatu zituen lan horiek bertatik bertara. Bolonian eman zuen aldiak gain, zuzendari nafarrak eta Euskadiko Filmategiko langileek prozesu osoa kontrolatu dute.

Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politikako sailaren babes ekonomikoari esker zaharberritu ahal izan da filma, Enrique Cerezo P.C. filmaren jabearekin adostuta.

#### Cannes Zinemaldia

Cannes Classics-erako hautatu dute *Tasio*, besteak beste, *Napoleon* (Abel Gance, 1927) eta beste film batzuekin batera. Adibidez, *Gilda* (Charles Vidor, 1946), *Paris, Texas* (Wim Wenders, 1984), *Los siete samurais* (Akira Kurosawa, 1954), *Los paraguas de Cherburgo* (Jacques Demy, 1964), *Loca evasión* (Steven Spielberg, 1974) edo *Cuatro noches de un soñador* (Robert

Bresson, 1971). Izan ere, frantziar zinema jaialdiaren sail horrek titulu klasikoak berreskuratzen ditu, eta, arlo horri dagokionez, munduko jaialdi garrantzitsuenen artean dago.

### **Hitzordu gehiago**

Euskadiko Filmategiak ahalegina egingo du euskal zinemagintzako film ikoniko hori zinema klasikoaren eremuan erreferentziazkoak diren beste hitzordu batzuetan ere proiektatu dadin. Irailean, Donostiako Zinemaldian egongo da ikusgai eta *Klasikoak* saila zabalduko du, zinema unibertsalaren historiako klasiko zahar eta modernoak berreskuratzen dituen saila, hain zuzen.

Bestalde, Tamasa banatzaile frantziarrak 2025ean Frantziako aretoetan proiektatzeko eskubideak erosi ditu.

### **“Tasio”**

Tasioren bizitza irudikatzen du filmak. Lokiz mendilerroan (Nafarroa) dagoen herri txiki bateko mutikoa da; zortzi urterekin hasten da mendiko lanetan, eta 14 dituenerako ikazkina da dagoeneko, aita bezala. Bizilagun askok lan finkoaren bila hirira alde egin arren, Tasiok nahiago du bere askatasunari eutsi eta mendian bizi. Anastasio Ochoa Ruiz (*Tasio*) ikazkin eta isileko ehiztariaren bizitza du oinarri filmak; gizon hura Zuñigan jaio zen 1916an, eta 1989an hil zen Valderrota mendian.

Informazio gehiago [hemen](#).

## Kultura eta Hizkuntza Politika

### **EUSKO JAURLARITZAK 700.000 EUROREKIN SUSTATUKO DU NAZIOARTEKO LEHIAKETETAN ETA MAILA GORENEKO ESTATU MAILAKO EMAKUMEZKO LIGETAN PARTE HARTZEA**

Kultura eta Hizkuntza Politika sailak iaz baino 100.000 euro gehiago, guztira 700.000 euro, bideratuko ditu 2024. urtean egin edo hasten diren eta nazioarteko eremua eta izaera duten kirol-lehiaketa ofizialetan, kategoria absolutuan, eta emakumezkoen taldeko kirolen liga nazionaletan, kategoria absolutuan parte hartzea sustatzera. Aurrekontuan izan den 100.000 euroko igoera emakumeen ligetako dirulaguntzen lerrora bideratuko da.

Gobernu Kontseiluak gaur oniritzia eman dio dirulaguntza deialdi honi. 700.000 euroko diru partida honela banatuko da:

- Nazioarteko esparrua eta izaera duten kirol-lehiaketa ofizialetan kategoria absolutuan parte hartzeko dirulaguntzetara 420.000 euro bideratuko dira.
- Emakumeen talde-kiroletako liga estataletan parte hartzeko dirulaguntzetara 280.000 euro bideratuko dira.

Deialdian jasotzen denez, deialdi honetara aurkeztu nahi duten klub, kirol-elkarte edo erakundeek honako irizpide hauek bete beharko dituzte:

- Nazioarteko federazio baten, Europako federazio baten edo nazioarteko liga profesional baten egutegi ofizialean sartuta egon beharko dute.
- Emakumezkoen liga estatalak kategoria absolutuko federazioaren edo liga profesionalaren egutegi ofizialean sartutako maila gorenekoak izango dira.

Eusko Jaurlaritzarentzat nazioarteko kirol-lehiaketetan parte hartzeak berebiziko garrantzia dauka, eta funtsezkoa da euskal kirolak nazioartean presentzia izateko, bai eta kirolaren praktika orokorra bultzatzeko ere. Hori da deialdi honen xedeetako bat. Emakumezkoen kirolak duen garrantziaren isla ere bada deialdia, euskal taldeek emakumezkoen maila goreneko lehiaketetan parte hartzea sustatu nahi du, bai eta kirolaren praktika orokorra ere.

## Kultura eta Hizkuntza Politika

### **EHUREN LIBURUTEGIAK EUSKADIKO LIBURUTEGIEN BILGUNEAREKIN BAT EGINGO DU**

Gobernu Kontseiluak gaur onartu du Eusko Jaurlaritzaren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen arteko hitzarmena. Hitzarmenari esker unibertsitateko liburutegia aurrerantzean Euskadiko Liburutegien Bilgunean sartu eta Euskadiko Liburutegi Sistemaren barruan egongo da. Euskadiko Liburutegi Sistema Euskal Autonomia Erkidegoko organo, liburutegi eta liburutegiz-erbitzuen multzo antolatua da eta liburutegi baliabide guztiak hobeto aprobetxatzea du helburu, elementu guztien koordinazioan eta lankidetzan oinarrituta. Bilguneak euskal liburutegi ia guztien ikuspegi bateratua eskaintzen du eta asko errazten du liburuzainen eta ikerlarien lana.

UPV/EHUK gaur egun milioi bat liburuki baino gehiagoko bilduma bibliografikoa gordetzen du Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako campusetako egoitzetan. Gaur onartu den hitzarmenaren bitartez Euskadiren Liburutegien Bilgunearen esku jartzen ditu bere titulartasuneko funts guzti horiek. Gaur egun Euskadiren Liburutegien Bilgunea 50 erakundek gehi udal liburutegiek osatzen dute, guztira 3.423.147 erregistro biltzen ditu.

Eusko Jaurlaritzaren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen arteko hitzarmena lau urterako da beti ere luzatzeko aukerarekin.



## Kultura eta Hizkuntza Politika

### GURE ARTEA 2024 SARIETARAKO DEIALDIA ONARTU DU EUSKO JAURLARITZAK

Kultura eta Hizkuntza Politika sailak urtero banatzen ditu Gure Artea sariak hiru modalitatetan saria jasotzen dutenek euskal arte garaikideari eta euskal kulturari egiten dioten ekarpena aitortzeko. Gobernu Kontseiluak gaur onartu du aurtengo sarien deialdia.

Urtero bezala hiru modalitatetan banatzen dira Gure Artea sariak:

- **Ibilbide artistikoa aitortzeko saria**: lan eta ibilbide osoa aintzat hartuta, egindako lan sortzaileagatik eta kulturari eta arte garaikideei egindako ekarpenagatik nabarmendu den artista aitortzeko saria.
- **Sorkuntza-lana aitortzeko saria**: azken urteak aintzat hartuta, bere jarduera artistikoagatik eta sortzaileagatik eta sorkuntza garaikideari egindako ekarpenagatik nabarmendu den artista edo artista-taldea aitortzeko saria.
- **Arte plastiko eta ikusizko arloan agenteek egindako lana aitortzeko saria**: Euskal Autonomia Erkidegoko arte plastiko eta ikusizkoen arloan egindako ekarpenagatik, alegia, kulturaren balio-katearen faseetan (ikerketa, prestakuntza, sorkuntza-ekoizpena, sustapena-hedapena eta banaketa) horiek sustatzeko jarduerak garatuz egindako lanagatik, nabarmendu diren pertsonak aitortzeko saria.

Sari bakoitzaren zenbatekoa 20.000 eurokoa da eta epaimahaiko kideek, arrazoitutako proposamenaren bidez, aurkeztuko dituzte hautagaiak. Horretarako maiatzaren 23tik aurrera hilabeteko epea izango dute. Gure Artea sarien aurtengo epaimahaia Susana Talayerok, Laida Lertxundik, Ismael Manterolak, Peio Aguirrek eta Carmen Garmendiak osotuko dute.

## Seguridad

### APROBADAS LAS RETRIBUCIONES DE LAS PERSONAS QUE HAN INTEGRADO LA JUNTA ELECTORAL DE EUSKADI DURANTE EL PERIODO ELECTORAL

- **A propuesta de la Mesa del Parlamento, el Consejo de Gobierno ha aprobado esta mañana las gratificaciones y retribuciones de las personas que conformaron este órgano desde que se convocaron las Elecciones al Parlamento Vasco 2024**

El Consejo de Gobierno ha aprobado, en su reunión de esta misma mañana, las retribuciones de las personas que han integrado la Junta Electoral de la Comunidad Autónoma de Euskadi durante las pasadas elecciones al Parlamento Vasco de 2024 del 21 de abril.

Se toma esta decisión a propuesta de la Mesa del Parlamento Vasco y en virtud del artículo 20.3 de la *Ley 5/1990, de 15 de junio, de Elecciones al Parlamento Vasco*, que dispone que las dietas y gratificaciones de las personas que integren la Junta Electoral de la Comunidad Autónoma de Euskadi y del personal a su servicio, deben fijarse por parte del Gobierno Vasco.

De esta manera, las gratificaciones brutas son las siguientes:

- ✓ Presidenta/e: 5.794 euros
- ✓ Vicepresidente/a: 4.529 euros
- ✓ Vocales: 3.374 euros
- ✓ Secretaria/o: 4.906 euros
- ✓ Otros miembros: 2.842 euros

Por otra parte, las retribuciones brutas del personal auxiliar son:

- ✓ Letrada/o: 2.900 euros
- ✓ Administrativo/a: 2.000 y 2.600 euros
- ✓ Traductor/a: 2.500 euros
- ✓ Informática/o: 2.000 euros
- ✓ Responsable comunicación: 2.200 euros

## Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente

### **GOBIERNO VASCO DESTINA MÁS DE 2 MILLONES DE EUROS A LA FORMACIÓN DE PERSONAL EN EL ÁMBITO CIENTÍFICO-TECNOLÓGICO DEL SECTOR AGROALIMENTARIO DE EUSKADI**

- El programa IKERTALENT destina 12 becas al personal investigador en formación y 10 becas al personal tecnólogo para participar en proyectos de centros tecnológicos o de investigación adscritos
- Desde 2007 se han financiado, a través de estas ayudas, un total de 269 proyectos que han reforzado la actividad de I+D+i en el sector agrario, pesquero y alimentario vasco

El Consejo del Gobierno Vasco ha aprobado hoy la orden de la consejera de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente, Arantxa Tapia, por la que se convoca el programa IKERTALENT 2024 de ayudas de formación a personal investigador y tecnólogo, en el ámbito científico-tecnológico y empresarial del sector agrario, pesquero y alimentario.

Esta convocatoria del programa IKERTALENT está dotada con más de 2.090.000 euros destinados a impulsar y promover la formación de personal investigador y tecnólogo mediante su incorporación en centros tecnológicos de Euskadi, en los que puedan participar en el desarrollo de proyectos de I+D+i en áreas científico-tecnológicas, mercados, marketing y organización empresarial de toda la cadena de valor agroalimentaria vasca.

El programa IKERTALENT se puso en marcha en el año 2007 y desde entonces el Gobierno Vasco ha financiado un total de 269 proyectos, 125 de jóvenes investigadores e investigadoras y 144 de jóvenes tecnólogos y tecnólogas.

En esta convocatoria se ofrecen 12 becas para el personal investigador en formación y 10 becas para personal tecnólogo.

#### **Líneas de ayudas y dotación económica**

